

KUDEAKETA-POLITIKA

GB Corporación-eko enpresok, markok eta zerbitzuok jateko premiari modu seguru, osasungarri eta etxetiarrean aurre egitea dugu helburu nagusi, eta, horretarako, zentzumenen esperientzia atsegina sortzen dugu. Hona hemen gure giltzarriak: esperientzia, jakintza eta oso profesionala den kudeaketa. Politika honen bidez, adierazi egin nahi dugu gure produktuen, zerbitzuen eta prozesuen helburua bezero eta alderdi interesdun guztien gustu-gustukoak izatea dela, honako printzipio orokor hauetan oinarrituta:

- Segurtasunaren eta osasunaren, ingurumenaren eta segurtasunaren arloko legeria eta enpresak borondatez edo alderdi interesdunen ondorioz onartutako beste eskakizun batzuk betetzeko konpromisoa hartzea.
- Kalitateko irudia sendotzea, kalitateko produktuarekin ez ezik, gure bezeroak euren aurreikuspenen arabera zerbitzuarekin ere gogobeteta daudela bermatzeko, den-dena prezio lehiakorrean eskaintzen dela kontuan hartuta.
- Ingurumenaren babesaren eta kutsaduraren prebentzioaren inguruko konpromiso iraunkorra hartzea, gure jarduerak ingurumenean dituen eraginak murrizteko.
- “Etengabeko hobekuntza” betebehartzat hartzea, merkatuko premien eta ingurumenaren arloko jardueraren hobekuntzaren arabera garatzeko.
- Kalitatean eta ingurumenean eragina duten kanpoko eta barruko gaiak jorratzea; esate baterako, alderdi interesdunen premiak eta aurreikuspenak.

Batez ere, honako hauexek dira GB Corporación-en konpromisoak:

1. Aginte Taula Estrategikoarekin lotutako helburuak urtero ezartzea, hedatzea eta ebaluatzea.
2. Isurien maila eta baliabide energetikoen, ontzien zein bilgarrien erabilera eraginkorra ebaluatzea eta kontrolatzea.
3. Gure bezeroekin, laneko segurtasunaren arloko jardueren koordinazioa bultzatzea.
4. Laneko segurtasun eta osasunaren zein ingurumenaren arloan langileen partaidetza, komunikazioa eta informazioa sustatzea.
5. Kudeaketan bertan, prebentzioaren arloko ageriko ikuspegia ezartzea, istripuak, osasunaren narriadura, akatsak eta kutsadura ekiditeko, erakundeko kide guztien konpromisoaren eta partaidetzaren bitartez.

Hori dela eta, honako hauxe da zuzendaritzaren erantzukizuna:

1. Politika hau alderdi interesdun guztien esku jartzea eta erakundeko maila guztietan ezartzea eta eustea.
2. Langileen artean, prestakuntzarako planak garatzea, ingurunearekin ezin hobeto bat datorren lanaren garapen egokiari begira haien prestakuntza eta motibazioa handitzeko asmoz.
3. Erakundeari berari jakinaraztea zeinen garrantzitsua den bezeroen eskakizunei nahiz legearen eta arauen arabera eskakizunei erantzutea.

Beraz, ezinbestekoa da **GB Corporación-eko** langile guztiok hemen azaldutako politikarekin bat egitea eta, horren ondorioz, ahal dugun neurrian, bete-betean parte hartzea bertan.

Mungian, 2017ko azaroaren 30n.

Fernando Gazpio
Zuzendari gerentea

